268. zk.
Bigarren aroa
Urtarrilak 1
2016

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Elkarrizketa
Iñaki Goikoetxea Burubero saioko zakuaren irabazlea.

3. orrialdea

Kirolak
Goi mailako eskubaloia hartuko du Artalekuk

9. orrialdea

4 Argazkiak: Caser Anakak Eguberrietan egindako jarduerak.
5-6-7 Argazkiak: Eguberrietako argazki-erreportajea.
8 Kirolak: Real Unionek mendeurrenean egindako jarduerak.
10 Erreportajea: Bueltan da DOAren azoka solidarioa.
11. Haurren lanak Elatzeta LH1
12 Gazteen lanak Toki Alai.
13 Gaztea Gabonetako jarduerak Martindozenean
14 Gazte infor
15 Agenda

Argazki lehiaketa

IRABAZLEA

Junkal Ruiz de Apodaka
Zabaltza enparantzan The Big Band Theory entzuten.

Urtean zehar argazki lehiaketan parte hartu dutenen artean afaria zozkatu dugu. Gaia bakarra izan da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: Meaka auzoko Amona Kattalinen afari bat, bi lagunentzat.

Irun atzo Irun gaur

IUA: 50489

Salvador Etxeandia kalea

Goiko argazkian Salvador Etxeandia kalea agertzen da, 1983. urtean. Izena 1964ko azaroaren 24ko Osoko Bilkuran jarri zioten.

Salvador Etxeandia Gal Irunen jaio zen, 1867ko azaroaren 8an, San Martzial karrikako 9. zenbakian. San Luis eskolan ikasi ondoren, Madrilen Perito Merkantil titulua lortu zuen 1886an. Bere formazioa osatzeko, Suitzan bi urte eman zituen, eta beste bat Alemanian.

Enpresari eta negozio gizon abila zen, eta negozioak ongi eramaten eta antolatzen dakien norbaiti dagokion inperioa eraiki zuen. Hala ere, gizon eskuzabala eta solidarioa izan zen.

1924an Irungo herriari lurrak eta dirua eman zizkion, futbol zelai bat eraikitzeko, gaur egungo Stadium Gal, hain zuzen ere. Irungo Udalak "Seme kuttun" izendatzea erabaki zuen.

Etxeandia jauna Madrilen hil zen, 1949ko martxoaren 14an. Bere heriotzak asko hunkitu zituen irundarrak.

Iturria: José Monje.

Irungo kaleen izenak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.
Tel: 693 828 099

Ayuntamiento Udala
Irun
www.irun.org

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

“Sariak ez dit bizitza aldatuko, baina egonkortasun bat edukitzeko lagungarria izango da”

Euskal Telebistaren deia jaso zuen Iñaki Goikoetxea kazetari irundarrak udaran. Lehenago telebistako lehiaketetan ibilia zen, eta denboraldi berriko emankizun batean parte hartzera gonbidatu zuten. “Horrelako programa batera joaten zarenean, gertatu daitekeen okerrena da ezer ez irabaztea eta lotsa pixka bat pasatzea”, pentsatu zuen orduan Goikoetxeak. Ideia horrekin parte hartu zuen Kike Amonarrizek ETB1en zuzentzen duen Burubero emankizunean. Baina patrikak ondo beteta bueltatu zen etxera. 25.500 euroko zakua irabazi zuen, bere hirugarren saioan.

IÑAKI GOIKOETXEA, Burubero emankizuneko zakuaren irabazlea.

Zergatik erabaki zenuen Buruberon parte hartzea?
ETBn, programa batean parte hartu duzunean, zure datuak gordetzen dituzte. Udaran deitu ninduten, eta hasieran ezezkoa eman nuen, Estatu Batuetan nengoelako. Bueltatu nintzenean, behin saioa ikusita, deitzea erabaki nuen. Iruditu zitzaidan polita zela. Euskal kultura, geografia eta horrelako gaiak asko gustatzen zaizkit. Nire ideia zen ondo pasatzea, eta eguneroko gastuak ordaintzeko laguntzatxo bat irabazten saiatzea. 300-500 eurorekin konformatzen nintzen.

Hirugarren programan eraman zenuen zakua. Nolakoak izan ziren lehenengoak?
Zenbait programa jarraian grabatzen dira. Beraz, lehiatu baino lehen aurrekoa ikusteko aukera izaten duzu. Hor giroan sartzen hasten zara, ez baita berdina telebistan edo interneten ikustea, eta platoan bertan egotea. Ni oso urduri egon nintzen lehen fasean, lehiakide bat kanpoan gelditzen delako. Hori gainditua, lasaiago egon nintzen. Lehen programan finaleraino iritsi nintzen, eta 300 euro eraman nituen. Beraz, horrekin helburua betea nuen.

“Bizpahiru aste behar izan ditut asimilatzeko”

Hirugarrenean finalera iritsi zinen berriro, eta munduko zazpi mirarien gaia egokitu zitzaizun. Zer pentsatu zenuen?
Finala grabatu behar denean, saioa gelditzen da, minutu batez edo. Nik banekien gaia menderatzea zaila izango zela. Gainera, han urduri zaude, minutu bat daukazu panela osatzeko. Azpimarratzekoa da etxean, goiko kamerarekin, erraz ikusten dela, baina platoko ikuspuntua, oso ezberdina dela. Finala monumentuei buruzkoa zela ikusi nuenean, behintzat gaia ezagutzen nuela pentsatu nuen. Hala ere, oso zaila da bost segundotan erantzun bat edo bestea aukeratzea. Nik pentsatzen nuen baten batean huts egingo nuela.

Nola gogoratzen duzu erantzun guztiak zuzenak zirela jakin zenuen momentua?
Gogoan dut Kike Amonarriz etorri zela, besarkada eman zidala, mikroa erori zitzaiola, musika eta buila. Gero beste lehiakideak eta programako langileak etorri ziren. Ni aulki batean eseri nintzen, mutu. Hurrengo egunean esan zidaten bazirudiela erori egingo nintzela. Niretzat sekulako oparia izan zen. Gazteak gara, lan prekarietatea bizi dugu, ez dakigu hurrengo urtean zer gertatuko zaigun. Eta batbatean horrelako koltxoi bat edukitzea, gauza handia da. Orain sinisten dut, baina bizpahiru aste behar izan ditut asimilatzeko.

Ingurukoei esan zenien zakua irabazi zenuela, edo isilpean gorde behar izan zenuen?
Ezin duzu sare sozialetan jarri, baina gertukoei esateagatik ez da ezer pasatzen. Ezer ez esatea polita izan daitekeen arren, nik banekien ezinezkoa izango zela. Grabaketa egin eta hiruzpalau egunetara, ezkontza bat nuen lagunekin. Hortaz, koadrilakoei, senideei, pisukideei eta lankideei kontatu nien. Batzuk ez zuten gogoratzen ezta telebistara joan behar nintzenik ere. Gero, programa eman zuten egunean, etxean elkartu ginen inguruko batzuk, elkarrekin ikusteko. Interneten bideoa azkar jarri zuten, eta sare sozialetan ere bizkor zabaldu zen.

“Sariak balioko du buruan ditudan proiektuei bultzada emateko”

Programan esan zenuen zakua irabaziz gero Perura joan nahi zenuela. Beteko duzu?
Bai, urtero saiatzen naiz bidaiatzen. Nire kotxea zaharra da, nire arropa ez da oso txukuna, nire bizitza oso normala da, baina beti ahalegintzen naiz bidaiak egiten. Duela lauzpabost urte hasi nintzen pentsatzen Hego Amerikara joan behar nuela. Nire inguruko jendea han egon da, eta oso gustura ibili da. Hurrengo urte eta erdian bi-hiru hilabeteko bidaia egin nahi nuke Argentina, Chile, Peru, eta Bolivia inguruan. Bidaiaz gainera, ordenagailu eramangarri berri bat, moto bat edo horrelako kapritxo bat erosiko dut. Gainerakoa, koltxoi moduan primeran etorriko zait. Bizitza ez zait aldatuko, baina behintzat egonkortasun bat izateko lagungarria izango da.

Ba al duzu beste proiekturik, dirua horietan inbertitzeko?
Kazetaria naiz, eta han eta hemen ibili naiz lanean. Gustatuko litzaidake material guzti hori nonbait pilatzea. Nire proiektuen inguruko web gune bat egin nahi nuke, edo horrelako zerbait. Duela bost urte Dancing in the Basque Country bideoa egin nuen, eta garai hartan pentsatu genuen horren inguruko web gune bat sortzea. Baina dirua eta denbora behar dira. Hori berreskuratzea ideia polita izan daiteke. Bestalde, Gipuzkoako herriak lotuko dituen beste bideo bat ere egin nahi nuke. Nik uste diru honek balioko duela buruan ditudan proiektuei nolabaiteko babesa edo bultzada emateko.

Jendea animatuko zenuke Buruberoren moduko emankizunetan parte hartzera?
Bai, noski. Ez da programa zaila, euskal kulturan mugitzen bazara, edo egunkariak irakurtzen baldin badituzu, behintzat. Gainera irudiak eta bideoak daude, nahiko dinamikoa da. Ez da Pasapalabra bat, edo Mihiluze zena, hitz zehatzak eskatzen zituena. Jendeak programa telebistan ikusten duenean gustuko baldin badu, behintzat saiatzera animatuko nuke.

Uste duzu euskal kultura zabaltzeko modu egokia direla?
Bai, Kike Amonarrizek egiten dituen programak oso baliagarriak dira. Horrelako gehiago behar genituzke. Euskararen fededunak edo praktikanteak ez dira konbentzitu behar. Horiek euskara maite dute, eta erabiltzen dute jada. Baina horrelako programa politak, hurbilak eta dinamikoak eskainita, gainerako jendea euskal mundura erakar daiteke.

Olaizola
Immobiliaria agentzia
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Eguberri bereziak Caser Anakan

Urtero bezala, jarduera asko antolatu dira Eguberrietan

Egun bereziak dira Eguberrietakoak Caser Anakan. Horregatik, urtero bezala, jarduera asko antolatu dira. Dena den, egoitzako kide batzuek senideekin igaro dituzte zenbait egun, edo Eguberri guztiak. Hauek dira egin diren jarduerak eta egingo direnak:

Abenduak 16: Irungo Kontserbatorioko musikarien kontzertua.
Abenduak 18: Pasionistas-eko umeen antzerkia.
Abenduak 21: Santo Tomas.
Abenduak 22: Eguberrietako loteriaren emankizuna.
Abenduak 23: Jaiotza biziduna.
Abenduak 24: Olentzeroren bisita.
Abenduak 25: Bazkari berezia Eguberri egunean.
Abenduak 28: Nagusilanen emanaldia.
Abenduak 31: Afari berezia.
Urtarrilak 1: Bazkari berezia.
Urtarrilak 4: Angel Pazosen eta Jose Luis Azcueren kontzertua.
Urtarrilak 5: Erregeen bisita.
Urtarrilak 6: Bazkari berezia.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780
CASER ANAKA

Caser
RESIDENCIAL
GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak
Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169
CASER BETHARRAM

GABONETAKO ARGAZKIAK

Santo Tomas egunean, taloak eta txistorra jateaz gainera, baserrietako animaliak ikusteko aukera egon zen.

Ama Xantalen ermitatik hurbil Jaiotza jarri dute.

Bigarren aldiz, patinatze pista ekologikoa jarri dute Irunen.

Eguberrietako argien piztea Erain ikastetxeko seigarren mailako ikasleek egin zuten.

Amona Kattalinera hurbildu ziren Olentzero eta Mari Domingi, hilaren 23an. Aukera ezin hobea izan zuten Meakako umeek, haien gutunak eramateko. Han musika egon zen, taloak prestatu zituzten eta beste produktu batzuk izan ziren salgai.

Santo Tomas eguna

Abenduaren 21ean, Santo Tomas eguna ospatu zen Urdanibia plazan. Eguraldi bikaina egin zuen, eta astelehena izan arren, giro paregabea egon zen.

sartu www.txingudionline.com-en eta ezagutu hobeto zure hiria

txingudionline.com

HENDAIA IRUN HONDARRIBIA

berriak, erreportajeak, historia, kirolak, hurbiltasuna, eztabaidak

Olentzero Irunen

Abenduaren 24an, Olentzero Alberto Anguera plazara heldu zen, eta Irungo kaleak zeharkatu zituen, San Juan Etxeandiaraino. Han, haurrek gutunak eman zizkioten.

DOCTOR HOUSE
Etxekologo

MOTA GUZTIETAKO LAN ETA KONPONKETAK ETXEETAN NAHIZ DENDETAN

- Arotzeria
- Margolanak
- Zaharberritze lanak
- Lorategiak
- Iturgintza
- Sarrailak
- Elektrizitatea
- Instalazio zein muntaketak
- Garbiketa bereziak eta abar

DAVID: 655 70 98 93

RICARDO GARCÍA, Real Unioneko presidentea

“Harrigarria izan da Irungo beste elkarteen partetik izan dugun harrera”

“Mendeurrenarekin lotutako 20 jarduera baino gehiago izan ditugu”

“Beharbada, komunikazioan huts egin dugu”

“Irabazten duguna baino gutxiago gastatzea da gakoa”

Mendeurrenaren urtea izan da 2015a Real Union elkartearentzat. Otsailaren amaieran hasi ziren ospakizunak, Ficobako auditoriumean egindako ekitaldian. Hortik aurrera, arlo eta formatu ezberdinetako zenbait jarduera antolatu ditu Real Unionek, eta presente egon da beste askotan, hiriko elkarteen babesari esker. Ricardo García presidenteak azaldu du 2016ko martxora arte luzatuko dutela mendeurrena. Baina momentuz, balorazio baikorra egin du.

Urte berezia izan da 2015a klubarentzat. Denen ahotan egon da, berriro, Real Union.

Oso hunkigarria izan da. Elkarte, erakunde eta norbanako askoren zorion-gutunak jaso ditugu, eta oparitxo batzuk ere bai. Benetan pozgarria izan da ikustea zenbat jendek maite duen Real Union.

Zein balorazio egingo zenuke mendeurrenaren inguruan antolatu dituzuen ekitaldi eta jarduerei buruz?

Ni oso pozik nago egin dugunarekin. Egia esan, gure eskura genituen baliabideekin, ez dakit zer gehiago egin zitekeen. Mendeurrenarekin lotutako 20 jarduera baino gehiago izan ditugu, urte erdiko epean, gutxi gorabehera.

Zein hitzordu azpimarratuko zenuke?

Aurkezpenarekin hasi ginen. Oso ekitaldi polita izan zen: klubaren historia laburtzen duen dokumentala ikusi genuen, eta ereserkia eta arropa ofiziala aurkeztu genituen. Nabarmentzekoa da, udalak Irungo Urrezko Domina eman zigula. Gero, futbolari dagokionez, kategoria guztietako lehiaketak antolatu ditugu, baita beteranoen artekoa ere. Lehen taldeak, Realaren aurka jokatu zuen uztailan.

Udaran bi egunez puzgarriak eta atrakzioak jarri genituen Stadium Galen, eta 800 haur baino gehiago hurbildu ziren. Gero, hiriko beste ekimen askotan egon gara presente: Bidasoa Itzulian, Juanma Garate martxa zikloturistan, Sagardo Egunean, Euskal Jiran, Txingudi Korrikan etab.

Irungo beste elkarteen laguntzari esker izan zarete ekimen guzti horietan.

Bai, eta eskertzekoa da. Harrigarria izan da Irungo beste elkarteen partetik izan dugun harrera. Batzuek, guk eskatu gabe deitu izan digute, proposamenak egiteko eta gauzak antolatzeko. Euskal Jirarena, adibidez, bitxia izan zen. Asier Martiarena antolatzaileak deitu gintuen, gurdia atera behar genuela esateko. Udara zen, jende asko oporretan zegoen, alebinen txapelketa bat egiten ari ginen, eta zail ikusi genuen. Baina asko lagundu ziguten, eta egun batetik bestera gurdia prestatu genuen. Orokorrean, harremanak sendotu ditugu elkarte askorekin.

Kluba bere inguruan berriro sozializatzea zen mendeurrenaren helburuetako bat. Bete duzuela uste duzu?

Baietz esango nuke. Herri giroko jarduerak izan dira gehienak, eta jende askok parte hartu du. Sagardo Egunean adibidez, 10.000 zapi banatu zituzten, Real Unionen mendeurrenaren logotipoarekin. Gero, jarduera batzuekin gertatu da jendeak ez duela haien berri izan, edo ez duela jakin Real Unionek antolatzen zituenik. Zentzu horretan, beharbada, komunikazioan huts egin dugu.

300.000 euroko gehieneko aurrekontua aurkeztu zenuten joan den urtearen hasieran, mendeurrenarekin lotutako jardueretarako. Beteko duzue?

300.000 euroko aurrekontua aipatu genuen, baina Real Madril edo Bartzelona ekarriko genituela pentsatuta. Nik uste kopuru horren erdian gelditu dela azkenean aurrekontua. Hori bai, hasieran esandakoa beteko dugu. Gastuak eta sarrerak pareko egongo dira.

Horixe da jende askorentzat falta izan dena: goi mailako talde baten kontrako partida.

Bai, nik ere badakit hori. Harremanak izan ditugu, behin eta berriro saiatu gara, baina oso zaila da maila horretako talde bat ekartzea, agenda kontuagatik. Dena den, nik ez dut amore emango. Garaiz gaude oraindik, martxora arte-edo mendeurrenari lotutako jarduerekin jarraituko baitugu. Nire ustez amaiera handi bat eman behar diogu, partida batekin eta herri bazkari batekin, edo Ficoban egin genuenaren antzeko ekitaldi batekin. Partidarako lantzen ari garen beste aukera bat da Gipuzkoako selekzioaren kontra aritzea. Lehen Mailan dabiltzan jokalariak egongo balira, polita izango litzateke.

Zein da klubaren egoera ekonomikoa?

Standby egoeran gaudela esango nuke. Konkurtsoaren mugan egon ginen, baina bideragarritasun plan bat finkatzea eta aurrera egitea erabaki genuen. Azken hiru urteotan 100.000-200.000 euro arteko irabaziak izan ditugu urtero, zorra kitatzen joateko. Hori bai, askotan diruzaintza arazoak izaten ditugu, ez zaigulako dirua garaiz ailegatzen. Horregatik izan ditugu atzerapenak ordainketetan. Hala ere, nik uste dut klubak hartu duen bidea egokia dela. Irabazten duguna baino gutxiago gastatzea da gakoa.

Urte zailak pasa dituzue.

Azken urteak gogorrak izan dira. 2. mailatik 2. Bra jaitsi ginen, babesleak eta bazkideak galdu genituen, eta gainera krisi ekonomiko gogorreko garaia zen. Nik asko daukat eskertzeko Xabier Otermin, Iñaki Goikoetxea, Juan Dominguez edo Eneko Romo bezalako jokalariei. Urterik okerrenetan, taldea bizirik mantendu dute. Laguntza handia eman diote klubari. Gure aldetik, onartzen dut gauza batzuk ez nituzkeela berriro egingo. Baina denok izaten ditugu akatsak. Aurrera egin beharra dago. Presarik gabe joan behar dugu, eta saria iritsiko da.

Kirol arloan, emaitza onak ari zarete lortzen.

Harrobiko lanean ondo ari gara lanean. Lehen taldeari dagokionez ere, planteamendu aldaketa bat egin genuen joan den urtean. Jokalari gipuzkoarrak edo ingurukoak bilatu genituen, idiosinkrasia bat, Real Union profil bat sortzeko helburuarekin. Horretarako, Aitor Zulaika entrenatzaile egokia dela uste dut.

Goi mailako eskubaloia hartuko du Artalekuk

Domingo Bárcenas Memoriala egingo dute Irungo kiroldegian

Mundu mailan, lagunarteko eskubaloi hitzordu nagusietako bat da Domingo Bárcenas Memoriala. Normalean, nazioarteko txapelketetarako prestaketa izaten da parte hartzen duten selekzioentzat. Aurten, Irungo Artaleku kiroldegian egingo dute, Irungo Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Espainiako eta Euskadiko eskubaloi federazioek adostutako lankidetza hitzarmenari esker. C. D. . Bidasoak ere parte hartuko du antolaketan. "Hiriak kirol hitzordu handiak hartu izan ditu azken urteotan, eta erakutsi du baldintza egokiak eskaini ditzakeela", azpimarratu du Jose Antonio Santano Irungo alkateak.

Txapelketaren XLI. edizioa izango da, eta urtarrilaren 8an, 9an eta 10ean jokatuko dira norgehiagokak. Brasil, Suedia, Polonia eta Espainia izango dira parte hartzaileak. Azken hiruak Europako Txapelketan ariko dira Irungo hitzorduaren ondoren. Polonian izango da, hain zuzen ere. Pentsatzekoa da, beraz, sasoian helduko direla. Edonola ere, maila handiko selekzioak dira laurak. Denen artean 8 domina lortu dituzte Joko Olinpikoetan, 18 Munduko Txapelketetan, eta 22 txapelketa kontinentaletan. Palmares onena Suediarena da. Lau aldiz izan da munduko txapeldun, eta beste lautan Europako txapeldun. Domina horietako azkena, ordea, 2002. urtean jantzi zuen. Azken urteotan maila onena eman duen selekzioa Espainiakoa izan da. Munduko txapelketa irabazi zuen 2013an, eta hirugarren izan zen Europakoan, 2014an.

Ikusleentzat, eskaintza ezberdinak egin dituzte. Hiru jardunaldietako partida guztiak ikusteko bonoak 40 euro balio du. Aldez aurretik eros daiteke, C.D.Bidasoa elkarteak Artaleku kiroldegian duen egoitzan, edo web gunean eskaini duen aplikazioan: (www.cdbidasoa.eus/xv-memorial-domingo-barcenas-2015). Leihatilan ere salduko dituzte bonoak, baina 50 euroren truke. Neurketa bakar bat ikusteak 20 euro balioko du.

Espainiako selekzioak jokatuko dituen partidak Televisión Española emango ditu, Teledeporte kanalaren bidez. Suediak, Poloniak eta Brasilek ere telebista eskubideak izango dituzte. Gainera, pakete turistikoak antolatu ditu C. D. Bidasoak, Equinoccio Bidaiak enpresarekin batera. Aitana hotelean logela, Kale Nagusiko Orrua jatetxean menua eta eskubaloi partidak ikusteko sarrerak eskaintzen dituzte. Prezio ezberdinetan, paketea erosten dunen lagunen eta Irunen pasa nahi dituzten gauen kopuruaren arabera.

> "Hiriak erakutsi du kirol hitzordu handiak antolatzeko baldintza egokiak eskaini ditzakeela"
>
> José Antonio Santano, Irungo alkatea

Julen Aginagalderen itzulera

Munduko jokalari onenetakoak ariko dira Artaleku kiroldegian. Hala ere, batek piztuko du arreta gehien, zale irundarren artean, batez ere. Julen Aginagaldek Artaleku kiroldegian jokatuko du berriro, kasu honetan, Espainiako selekzioarekin. 33 urteko irundarra Poloniako Kielce taldeko jokalaria da, eta selekzioarekin erdietsi ditu lorpenik handienak. Munduko jokalari onenen zerrendako podiumean izan da, eta piboteen artean onena dela aitortzen dute adituek. Bidasoaren harrobian hazitako jokalaria da. 1999an egin zuen debuta lehen taldearekin, eta 2006ra arte aritu zen Artalekun. 24 urte zituela utzi zuen Bidasoa, kirol ibilbide arrakastatsuari hasiera emateko. Leongo Ademarren, Ciudad Realen, Atlético Madrilen eta Kielcen aritu da ondoren. 2007an Artalekun jokatu zuen Aginagaldek, Ademarrekin. Baina urte hartan, Bidasoak maila galdu zuen. Orduz geroztik, behin bakarrik jokatu du pibote irundarrak Artalekun. 2012an izan zen, klubaren 50. urteurrenaren harira beteranoen eta lehen taldeko jokalarien artean antolatutako festa giroko lagunartekoan.

> "Ia negar malkoak isuri zituen Julen Aginagaldek, emozioagatik"
>
> Francisco Blázquez, Espainiako Eskubaloi Federazioko presidentea

Abenduaren 11n plazaratu zuten Espainiako selekzioaren deialdia. "Zoriontsu, berriro Artalekun jokatzeko aukeragatik", argitaratu zuen Julen Aginagaldek sare sozialetan, zerrendan zegoela egiaztatu ondoren. Hilabete lehenago jakin zuen Domingo Bárcenas Memoriala Irunen izango zela. Francisco Blázquez Espainiako Eskubaloi Federazioko presidenteak Aginagalderen erreakzioa azpimarratu du: "Ia negar malkoak isuri zituen, emozioagatik". Lanbideak ez dio herrira bisitan etortzeko aukera handirik ematen. Oraingoan, berriz, eskubaloiak berak ekarrita izango da Irunen.

DOMINGO BÁRCENAS MEMORIALAREN ORDUTEGIA:

Urtarrilaren 8a:
18:45 Polonia-Brasil
20:24 Espainia-Suedia

Urtarrilaren 9a:
16:00 Suedia-Polonia
18:00 Espainia-Brasil

Urtarrilaren 10a:
11:00 Brasil-Suedia
13:00 Espainia-Polonia

(Irungo Artaleku kiroldegian)

Bueltan da DOAren azoka solidarioa

Foru kaleko bi lokal hartu ditu gobernuz kanpoko erakundeak Gabonetan

Joan den urtean, DOA Denok Osasunaren Alde gobernuz kanpoko erakundeak ezin izan zuen urtean behin egin ohi duen azoka solidarioa antolatu. Ez zuten doako lokal egokirik topatu. Aurten, berriz, ekimena berreskuratuko dute DOAko kideek. Bat ez, bi lokal lortu dituzte Irungo erdigunean. Ia elkarren ondoan daude, Foru kalean. Abenduaren 21ean ireki zituzten dendak, eta urtarrilaren 5era arte egongo dira zabalik. Bildutako dirua DOAk Bolivian dituen proiektuetara bideratuko dute.

Abenduaren hasieran ekin zioten DOAko kideek irundarrek emandako objektuak hartzeari. Denak bildu, sailkatu eta txukun jarri dituzte, saldu ahal izateko. “Jendea oso ondo portatu da. Gauza asko ekarri ditu. Azken finean, denok ditugu etxean erabiltzen ez ditugun objektuak”, baieztatu du Maria Jesús Gascue langile boluntarioak. Bi lokal dituztenez, denda ezberdinak eta berezituak jarri dituzte aurten. Cervantes galeria zenaren lokalean, jostailuen azoka prestatu dute. Antzinako jostailu-denda dotorea dirudi. Marina ehunen denda ohian, aldiz, gainontzeko objektu guztiak kokatu dituzte. Denetarik dago: etxeko tresnak, ontziak, erlojuak, altzariak, liburuak, ikus-entzunezko materiala etab. “Ekartzen digutenarekin lan egiten dugu. Jendearen ekarpenagatik izango ez balitz, azoka ez litzateke posible izango”, azpimarratu du Mar Sola boluntarioak.

Santo Tomas egunean goizeko hamarretan zabaldu dituzte dendak. Ordurako, ilarak zeuden ateetan. Komunikabideetan azoka iragartzeko egin duten “ahaleginaren ondorioa” izan daitekeela aipatu du Solak. Bere ustez, azokaren prezioak ere izan daitezke jendea erakartzeko arrazoi: “Gauza interesgarriak topatu daitezke, oso merke”. Jendeak emandako objektuei prezioa jartzea ez da lan samurra izaten. Kostatzen zaie ados jartzea. “Oso irizpide edo ikuspuntu ezberdinak ditugu”, onartu du Maria Jesus Gascuek. Denden beste ezaugarri erakargarria kokalekua da. Bikaina dela aitortu du Mar Solak: “Txiki samarrak dira lokalak, baina kokalekua oso aproposa”. Higiezinen enpresei eta lokalen jabeei eskerrak eman nahi izan dizkie, azokarako utzi izanagatik.

Hamabost lagun inguruko lan taldea osatu dute, urtarrilaren 5era arte lan egiteko. Gehienak Toki Alai ikastetxeko irakasleak, edo ikasleen gurasoak. Harreman estua baitu DOAk Toki Alairekin. Mar Sola irakasle ohia da, eta ikastetxearen inplikazioa azaldu du: “Ikastetxe osoaren parte hartzea sustatzen saiatzen gara. Sentsibilizazio lana egiten dugu, eta ikasleek azoka prestatzen eta apaintzen laguntzen dute”. Astelehenetik larunbatera irekiko dute azoka, 10:00etatik 13:00era, eta 17:00etatik 20:00etara. Dendak zabalik egon arren, objektuak jasotzen jarraituko dute.

Bolivian heziketa berezia sustatzea du helburu

Azoka solidarioaren helburua dirua biltzea da, DOAren proiekturen bat babesteko. Aurten, Boliviako Amazonian hezkuntza premia bereziak dituzten haurrak eskolan integratzea da helburua. “Eskola arruntetan integratzen saiatzen ari gara. Momentu honetan, haien egoera nahiko latza da. Gehienak etxean izaten dituzte, atera gabe. Beste batzuetan haurtzaindegietan, baina ghettoak izango balira bezala”, azaldu du Mar Solak. Eskolak integraziora bultzatzeko, beka sistema bat sortu nahi du DOAk: “Dependentzia mailaren arabera banatuko genuke dirua, eskolek laguntzaileak kontrata ditzaten, eta integraziorako lanean murgildu daitezen”. Proiektu hori posible egiteko, ahalik eta diru gehien biltzen saiatuko dira azokan. Dena den, Solak onartu du ez dutela kopuru finkorik markatu: “Urteren batean 24.000 euro ere lortu izan ditugu. Baina oso zaila da kopuru horretara iristea. Azoka egin genuen azken aldian, 12.000 euro bildu genituen”.

Hamalau urteko ibilbidea du DOAk, eta bi lan ildo izan ditu orain arte: osasuna eta hezkuntza. 18.000 gaixo baino gehiago artatu izan dituzte DOAko boluntarioek, Bolivian eta Guatemalan. Herrialde horietan, hezkuntzarekin lotuta, beste zenbait proiektu aurrera eraman dituzte: bi liburutegi eta ludoteka bat sortu dituzte Guatemalan, mekanika ikasketak eskaini dituzte Guatemalako eta Boliviako zentroetan, eta heziketa bereziko eskolak sortu dituzte. Irungo Gabonetako azoka solidarioak ekarpen handia egin izan die proiektu guzti horiei.

> “Jendearen ekarpenagatik izango ez balitz, azoka ez litzateke posible izango”
>
> **Mar Sola**

Elatzeta LH1



Arrigain Asesores S.L.
ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK
Asesoría Arrigain
Zerbitzuak:
Kudeaketa administratiboak, laboralak,
kontularitzakoak eta zergenak
Ibilgailuen eskualdaketak
Ondarearen transmisioak, dohaintzak, oinordekotzak...
Errenta altorpenak
Aseguru orokorrak
Eta abar...
San Ramon kalea, 3 atzea, sarpidea Euskal Herria hiribidetik – irun
Telf: 943526080 - 676756975
www.arrigain.es asesoria@arrigain.es

Nahia Perez de San Roman, Toki Alai DBH4

Kaixo, lagun. Badakit jada berandu dela, eta honek ez duela egoera aldatuko, baina nire azkenetan nabil eta gauza asko esan behar dizkizut hil aurretik.

Oroitzen zara elkar ezagutu genuen aldiaz? Guztiz arrotza zinen niretzat, arraroa eta oso konplexua. Etengabe entzuten zintudan esaten zenuena ulertu gabe, eta horrek gaizki sentiarazten ninduen, egia esan. Lehenengo uretik sumatu nuen zu desberdina zinela, horren goxoa eta epela, ezaguzen zintuzenen alboan laztan baten modukoa. Pixkanaka pixkanaka, zurekin harremana lortu nuen, eta orain ohorez beterik esan dezaket nire bizitzako momentu politenak zurekin batera igaro ditudala.

Gogoan dut uderako gau eztiak udalekuetako suaren aurrean ematen genituela, lagunartean zuk erakutsitako kantuen erritmoan izarrak zenbatuz. Gau horiek oraindik azalean senti ditzaket begiak itxiz gero, gitarraren doinu lasaiaren xuxurlan galduz. Gazteak ginen, eta ametsetan bizi ginen, oraina gozatuz etorkizunaz kezkatu gabe. Logale ginen, baina ez zuen axola, egunsentia oraindik urrun baitzegoen. Non gelditu ziren, laztana, gau amaigabe horiek?

Hamabi urte rituenean, Florentziara joan ginen oporretan, dakizun bezala. Oso barregarria izan zen jatetxe bateko zerbitzariak ez gintuenean ulertzen, eta mirnika saio irrigarri bat burutu behar izan genuenean eskaera egiteko. Sukaldaria bera etorri zen gurekin komunikatzeko asmoz, eta bezero guztiak barre algaratan hasi ziren hamaika saiakeraren ondoren lortu genuen arte. Azkenean, berandu egin zitzaigun eta pizza bat musu-truk jan genuen. Itzela izan zen.

EUSKARAZ, iRUNEN BARRENA

Hondarribiko Amuteko Juan Jose Arburu Dugavier 10 urteko haurrari jasoa.

(El Bidasoa, 1959-XII-12)

Gabonetan Kantatzeko

Ator ator mutilla itxera
gaztaña zimela jatera
Gabon Gabon
Jainkuak diela

Barku bat pintatu
itsasora fan ta
ondatu,
mutilla´itxi onetakua,
itten dio amari
mandatu.

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

Gabonak arindu dizkie Martindozeneak gaztetxoei

Egitarau berezia antolatu du gaztelekuak

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek gogoz hartu ohi dituzte Gabonetako oporrak. Batez ere, ikasturteko lehenak izaten direlako. Klaseko lanak eta eskolaz kanpoko jarduerak alde batera uztea erakargarria iruditzen zaie. Etxean bizpahiru egun pasa ondoren, aldiz, gehienak aspertzen hasten dira. Egoera horri aurre egiteko, Gazte Gabonak egitarau berezia antolatu dute Martindozenea Gaztelekuak eta Irungo Udaleko Gazteria arloak.

Abenduaren 21ean, Santo Tomas egunean eman diote hasiera Martindozeneako Gazte Gabonak egitarauari. Taloak egiten ikasi dute hurbildutako gazteek, eta txistorrarekin, gaztarekin edo txokolatearekin jan dituzte. Arrakasta izan du tailerrak, 60 lagun baino gehiago bildu baitira, Irunen, jardueren eskaintza zabala izan bada ere. “Hamabost urtetik beherakoak izan dira gehienak. Adin horretatik gorakoek bestelako planak izaten dituzte egun horretan”, argitu du Miren Amazabal Gizarte Hezitzaileak. Abenduaren 23an Minecraft bideojokoari buruzko tailerra egin dute. Oso jarduera espezifikoa da, eta benetako interesa duen dozena bat lagun besterik ez da egon. Hamabi eta hemeretzi urte arteko gazteak ziren. Hiru orduko tailerra izan den arren, arduradunek eramangarri egin dutela azaldu du Amazabalek: “Iruditzen zitzaigun beharbada denbora gehiegi izango zela. Baina azkenean ondo pasa dute, ez dira aspertu”.

Hurrengo hitzordua ez da horren erakargarria izan gaztetxoentzat. Material birziklatuarekin opariak egiteko tailerra zegoen programatuta, abenduaren 23rako. Bertan behera gelditu da, ordea, parte hartzaileen faltagatik. Hala ere, antolatzaileek espero zuten halakorik: “Imajinatzen genuen tailerrak ez zuela arrakasta handirik izango, lan egitea ez baita erakargarria gaztetxoentzat. Dena den, jendea etorri ez izanak ez digu kezkarik sortzen. Guk eskaintza luzatu dugu behintzat”. Abenduaren 27an, Irun Break txapelketaren X. edizioa hartu du Amaia Kultur Zentroak. Gaur egun bide propioa egin badu ere, Martindozenea Gaztelekuan sortutako ekimena da. “Irun Break-eko kideek gaztelekuan eman zituzten lehen urratsak. Txapelketa bat egitea proposatu genien, eta gaztelekuan bertan egin genuen lehen edizioa. Hortik aurrera, handituz eta hobetuz joan da ekimena”, gogoratu du Miren Amazabalek.

> “Gazteen iniziatibak sustatzea eta lantzea da Gazteria arloaren helburu nagusietako bat”
>
> **Josune Gomez, Gazteria arloko ordezkaria**

> “Gizarte hezitzaileak gara, eta harremanetan oinarrituta egiten dugu lan”
>
> **Miren Amazabal, Gizarte Hezitzailea**

Gazteek proposatu dituzte ekintzak

Abenduaren 28an, Martindozenea Gaztelekutik irten dira gaztetxoak, Zabaltza plazako patinatze pistara joateko. Abenduaren 29an, Just Dance dantza txapelketa egin dute gaztelekuan. 30ean, urtezaharreko ospakizuna aurreratu dute, modu berezi batean. Azpeitiko ohitura den txikiteo elegantea egin dute. “Koloretako zakar poltsekin egin ditugu jantziak, eta mahatsak jan ditugu batera, eguerdiko hamabietan”, aipatu du Amazabalek. Gazte Gabonak egitarauaren balorazio baikorra egin du Josune Gomez Gazteria arloko ordezkariak. Departamentuaren ardatz estrategikoetako batekin lotuta dagoela aipatu du: “Gazteen iniziatibak sustatzea eta lantzea da Gazteria arloaren helburu nagusietako bat. Gazte Gabonak ekimena adibide egokia da”.

Gazte Gabonak egitaraua osatzeko, proposamenak hartu dituzte oinarri. “Gazteen arteko prozesu parte hartzaile batetik atera dira”, baieztatu du Josune Gomezek. Urtean zehar gaztelekura hurbiltzeko ohitura duten gazteek egin dituzte proposamenak. Publiko finko samarra du Martindozeneak, eta hori positiboa dela uste du Miren Amazabalek: “Gizarte Hezitzaileak gara, eta harremanetan oinarrituta egiten dugu lan. Gazteak ezagutzen ez baldin baditugu, nekez lortu dezakegu hori”. Gaztelekuaren helburua ez da jarduerak antolatze hutsa. Gaztetxoei arduRak eta erantzukizunak hartzen erakusten ahalegintzen dira langileak. “Jarduerak proposatzera bultzatzen ditugu. Konturatu daitezen badaudela asperraldiak uxatzeko mila modu”, adierazi du Amazabalek. Gabonetan, behintzat, aspertzeko aitzakia gutxi izan dute Martindozenea Gaztelekuan.

Deialdiak

"Asun Casasola" Ipuin laburren 2. lehiaketa

Zer? Bigarren aldiz antolatu dute “Asun Casasola” ipuin lehiaketa, "Genero Indarkeriarik gabeko Bizitzak” leloarekin. Parte hartu ahal izateko, kontakizunari esaldi honekin ekin beharko diozu, gaztelaniaz: "Lo que le hizo tomar la decisión de no volver...". Euskaraz, berriz, beste honekin: "Lortu du..." Anima zaitez!

Epea: 2016ko otsailaren 10era arte.

Norentzat? 16 urtetik gorakoentzat.

Oinarriak: https://asuncasasolaipuinak.wordpress.com/oinarriak-bases/



Kartel Lehiaketa

Zer? 2016ko Heineken Jazzaldia iragartzeko kartel lehiaketa.

Epea?: Urtarrilaren 14ra arte.

Saria? 1200 euro.

Kontaktua? Donostiako Jazzaldia, Reina Regente, 8 20003 Donostia (Gipuzkoa).

Deialdia luzatzen du: Donostia Kulturak.

Oinarriak: http://posterheinekenjazzaldia.com/es/bases/

Justizia arloko Lanpostuak

Zer? Justizia Ministerioak 752 plaza eskaini ditu Laguntza Judizialeko Kidegoan, eta 376 plaza Izapidetze Prozesal eta Administratiboan.

752 plaza Laguntza Judizialeko Kidegoan

Epea: 2015/02/01.

Baldintzak: DBHko graduatua edo baliokidea.

Tasak: 11,21€

Plazak Euskadin: 30.
Plazak Nafarroan: 10.
Plazak Errioxan: 10.

376 plaza Izapidetze Prozesal eta Administratiboko Kidegoan

Epea: 2015/02/01.

Baldintzak: Batxilergoa edo teknikari titulua.

Tasak: 14,97€.

Plazak Euskadin: 44.

Plazak Nafarroan: 6.

Webgune bat sortu nahi duzu?

Zer? Web Wix webgune bat da eta aukera ematen dizu zure webgune propioa sortzeko.

Sortu zure webgunea, zure estilo eta diseinuarekin. Zerotik hasi zaitezke, nahi duzun plantila aukeratuz. Ez da koderik behar eta doakoa da.

web-orria: www.wix.com

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA Kultur Gunean
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Azterketak!!!! IKASKETA GELEk ordutegiak zabalduko dituzte

Ikasketa gelen ordutegia zabalduko dute abenduaren 19tik otsailaren 7ra arte. Azterketa garaia iritsi dela eta, Carlos Blanco Aguinaga (CBA) Kultur Zentroak zabaldu egin du ikasketa gelak irekita edukitzeko ordutegia.

Ordutegia:

- Astelehenetik ostiralera: 9:00 - 20: 00.
- Larunbatetan: 9:00-13:00 / 15:00-20:00.
- Igandeetan: 9:00 - 13:00.

Salbuespenak:
- urtarrilaren 1ean eta 6an, gelak itxita egongo dira.

CENTRO KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

Urtarrilak 2

Zer? Eguberria Erromatar Museoan pasatzeko aukera izango duzu. Ama Xantalenera eta Erromatar nekropolira irteerak egingo dira, trenez, Oiasso Museotik. Ezagutu ezazu Ama Xantalen Baselizaren azpian arkeologoek aurkitutako altxorra. Oiasso erromatar hiria aurkitzeko lehen arrastoa izan zena.

Norentzat? Interesa duen edonorentzat.

Non? Oiasso Erromatar Museoa. Eskoleta, 1.

Ordua? 11:00etatik 12etara.

Prezioa? 3 euro.

Erreserbatzeko? Telefonoz: 943639353.

Urtarrilak 8

Zer? XLI. Espainiako Nazioarteko Eskubaloi Txapelketa "XV. Domingo Bárcenas Memoriala" jokatuko da Artaleku kiroldegian. Espainiako, Poloniako, Brasilgo eta Suediako eskubaloi selekzioak ariko dira.

Non? Artaleku kiroldegian.

Ordua? 18:45: Polonia-Brasil. 20:45: Espainia-Suedia

SARREREN SALMENTA:
Aldez aurretik, 3 eguneko bonoak 40 euro. Txarteldegian, bonoak 50 euro eta 20 euro eguneko sarrerak.

SARRERAK SALGAI:
CD Bidasoaren bulegoetan lor daitezke aldez aurretik, Artaleku kiroldegian (10:30-13:00 eta 17:30-20:00) eta bestela, www.marca.com-en.

- Internet bidez: WEB lotura jarraituz: https://www.marcaentradas.com/eventos/ficha/2548-abonos-xv-memorial-domingo-barcenas

Informazio gehiago 9. orrialdean.

Urtarrilak 9

Zer? Taupadak Orkestra bosgarren urtez elkartuko da bere ekimen artistiko eta solidarioarekin Irungo publikoak goza dezan. Iker Sánchez izango da zuzendaria eta Jonathan Mesonero biolin bakarlariak parte hartuko du, Bizenten operan oinarritutako Pablo Sarasateren "La fantasía Carmen, Op.25" obra interpretatzeko. Ohi bezala, biltzen den dirua Boliviako Amazoniako San Ignacio de Moxoseko musika eskolarako izango da.

Ordua? 20:00etan.

Sarrerak lortzeko?
- Irungo Turismo Bulegoan, Luis Mariano plazan.
- Internet bidez: https://ticket.kutxabank.es/janto/
- Leihatilan ikuskizunaren egun berean.

Prezioa? 10 euro.

ERREGEEI ONGI ETORRIA ETA ERREGEEN DESFILEA

Urtarrilak 4

Zer? 16:00etatik 20:00etara, Irungo Udalaren Bilkura aretoan Erregeen laguntzaileek gutun bilketa egingo dute.

Urtarrilak 5

Zer? 18:30ean Letxunborro Hiribidetik ERREGEEN KABALGATA TRADIZIONALA abiatuko da. Kabalgatak Hondarribia kalea eta Kolon ibilbidea igaroko ditu, eta ondoren, San Juan plazan amaituko da. Erregeek udaletxeko balkoitik haurrak agurtuko dituzte.

Amona Kattalin Txoko

Amona Kattalin Txoko jatetxea Meaka auzoan dago. Errazta-suna aparkatzeko, zerbitzu arretatsua, kalitatea, eta prezio ona.

Tel: 843 98 57 06
Meaka Auzoa, 9, Irun.